ZARAUZKO UDALA

Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea

Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea

I. ZIOEN AZALPENA

II. ORDENANTZA OROKORRA
1. Xedapen orokorrak
2. Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa
3. Dirulaguntzaren ordainketa
4. Dirulaguntzaren xedearen justifikazioa
5. Aurrekontuak kudeatzeko prozedura
6. Dirulaguntzen itzulera
7. Zigor erregimena
8. Publizitatea
9. Balorazio irizpideak: berdintasuna eta hizkuntza
10. Interpretazioa
11. Errekurtsoak

III. XEDAPEN GEHIGARRIA

IV. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

V. AZKEN XEDAPENA

I. ZIOEN AZALPENA

Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko modernoan ukaezina da dirulaguntzek duten garrantzia, eta beldurrik gabe esan daiteke edozein administrazioren politika sozial eta ekonomikoan erabakigarria den tresna baten aurrean gaudela.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluak ematen dizkion lankidetza-eskumenak dituen lurralde-administrazio gisa, Zarauzko Udalean garrantzi handia du dirulaguntzei buruzko jarduerak.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorreko jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta, baita, Administrazio Publikoaren eta partikularren arteko lankidetza-prozedura bat, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

Zentzu zabalean, izaera juridiko eta ekonomiko desberdineko figura-multzoa biltzen duen kategoria bat da dirulaguntza, bertan bat egiten dutelako aurrekontuko eta finantzako alderdiek eta alderdi juridiko-administratiboek. Horrenbestez, dirulaguntzaren diziplinarteko izaeraz hitz egin daiteke, Erakunde honen finantza- eta aurrekontu-nagusitasuna kontuan izanda.

Dotrina ia osoak eta Kontuen Auzitegiaren hamaika gomendiok —araudien sakabanatzeak eta hutsuneak eragindako ziurtasun-gabeziaren aurrean— problematika horri modu integralean helduko zion dirulaguntzen lege orokor bat eskatzen zuten, eta horixe egiten dute

azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta horren garapeneko Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua).

Ordenantza Orokor honek diru-entrega moduan ematen den laguntza publikoan jartzen du arreta guztia, horixe baita arautze-premia handiena duen figura. Helburua da efikazia eta efizientzia handiagoa lortzeko arau egokiak ezartzea eta, aldi berean, izaera publikoak laguntza ekonomiko mota honi ematen dizkion kontrola eta gardentasuna indartzea.

Beste batetik, komenigarria eta beharrezkoa da bere tramitazioan eta justifikazioan irizpide homogeneo batzuk ezartzea, eta, aldi berean, udal departamentuei eta Kontu-hartzailetzari erraztasunak ematea dirulaguntzaren xedea betetzen den frogatzeko egiten duten egiaztatze-lanean.

Ordenantza Orokor honen helburua, beraz, Zarauzko Udalaren dirulaguntza-jarduera guztia kokatzea da; eta, bide batez, udal arlo bakoitzak kudeatutako dirulaguntzen oinarri espezifikoak ere ematen ditu, eranskin gisa.

Urtero, dagokion deialdia onartuko du organo eskudunak, zenbatekoaren arabera.

Ordenantza hau ondorengo tituluek eta xedapenek osatzen dute:

II. ORDENANTZA OROKORRA

1. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazioaren helburua, definizioa eta esparrua

Helburua:

Ordenantza honen helburua da Zarauzko Udalak ematen dituen dirulaguntzen irizpideak eta emakida-prozedurak finkatzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta legearen garapeneko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezartzen dutenaren babesean.

Definizioa:

Dirulaguntza, Ordenantza honen ondorioetarako, Udalak pertsona publikoen edo pribatuen alde egindako diruzko edozein ekarpen da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematen da.
b) Dirua emateko, helburu jakin bat bete behar da, proiektu bat gauzatu behar da, jarduera bat egin behar da, portaera berezi bat hartu behar da (dagoeneko egin dena edo garatzeko dagoena), edo egoera bat gertatu behar da, eta onuradunak ezarri diren betebehar material eta formalak bete behar ditu.
c) Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat bultzatzea da.

Salbuetsitako kasuak:

Ordenantza Orokor hau ez da aplikatuko kasu hauetan:

a) Zerga-legeriak edo legeria sektorial aplikagarriak araututako dirulaguntza inpropioak (hobariak, salbuespenak...).
b) Zerbitzu publiko baten kontzesiodunari emandako dirulaguntzak, zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio gisa jasotzen dituenak.
c) Beste Administrazio batzuek emandako dirulaguntzak, Udalak bitarteko soil gisa jokatzen duenetan.
d) Udalak ordezkaritza duen erakundeetan (erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak, partzuergoak, mankomunitateak, fundazioak, elkarteak, etab.) urtero egiten dituen diru-ekarpenak, entitate hartzaileen aurrekontuak eta jarduerak modu globalean finantziatzeko.
e) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteen aldeko dirulaguntzak (Udalen Federazioa eta Elkartea).
f) Udalbatzan ordezkaritza duten talde politikoei emandako dirulaguntzak, beren funtzionamendu-gastuak ordaintzeko.

2. artikulua. Araudi aplikagarria

Bai dirulaguntzen emakida bai emailearen eta entitate onuradunaren arteko erlazio juridikoa honako hauek arautuko dute: udal ordenantza honek, dirulaguntza-lerro bakoitzaren oinarri espezifikoak ematen dituztenek eta emakidaren unean indarrean dagoen gainerako araudiak.

Ordenantza honetan eta oinarri espezifikoetan aurreikusi ez den orotan hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE), horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE), eta gainerako xedapen aplikagarriak.

3. artikulua. Dirulaguntzen izaera

1. Ordenantza Orokor honek araututako dirulaguntzek borondatezko izaera dute, ez dute eskubiderik sortzen ondorengo urteetan beste dirulaguntza batzuk lortzeko (urte anitzeko gastu gisa eman ez badira), eta ezin dira aurrekari gisa alegatu.

2. Emakidaren baldintza den interes orokorreko helburua betetzearekin lotuta daude dirulaguntzak, eta ez-itzulgarriak dira, emakidaren egintzan jarritako baldintzak eta kargak ez betetzeak berekin dakarren itzulerari utzi gabe.

3. Edonola ere, Udala eta bere mendeko entitateak salbuetsita geratuko dira diruz lagundutako pertsonek edo entitateek egin behar dituzten jardueretatik sortutako erantzukizunetatik (zibila, merkataritzakoa, laborala edo beste edozein motatakoa).

2. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

4. artikulua. Printzipio orokorrak

Ordenantza orokor honek aipatzen dituen dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

a) Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
b) Efikazia, Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzerakoan.
c) Efizientzia, baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez edo zuzeneko emakida bidez emango dira.

5. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Dirulaguntzaren zenbatekoak (beste Administrazio Publiko batzuek helburu berarekin emandako dirulaguntzekin batera) ezingo du gainditu diruz lagundutako obraren edo jardueraren kostua.

2. Ezingo da eman deialdian zehaztutakoa baino dirulaguntza handiagorik, legearen garapen-erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

6. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak

Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, eta dirulaguntzen oinarri espezifikoetan jarritako epean egiten direnak. Epe zehatz bat jartzen ez denean, dirulaguntza eman den urte naturala bukatu baino lehen egin beharko dira gastuak.

Dirulaguntzaren araudian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat.

Diruz lagun daitezkeen gastuen erosketa-prezioa inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

Legean aurreikusitako gastuez gain, hauek ere diruz laguntzeko modukoak dira: finantza-gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta diruz lagundutako proiektua egiteko peritu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikoak, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera behar bezala prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, eta betiere oinarri espezifikoetan hala aurreikusten bada.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen legerian kontratu txikietarako jarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik; ez, ordea, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri

bereziengatik merkatuan ez badago zerbitzu hori hornitzen edo ematen duen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean.

7. artikulua. Aurrekontua kontsignatzea

1. Dirulaguntzak gastu publikotzat joko dira, eta eraginkorrak izango dira, baldin deialdi bakoitzean aurreikusten den aurrekontu-kreditua nahikoa eta egokia bada.

2. Dirulaguntzen emakidatik sortutako eduki ekonomikoko betebeharrei erantzuteko aldez aurretik aurrekontua aldatu behar bada, honako hauek jarritako moduan tramitatuko da dagokion espedientea: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua edo une bakoitzean indarrean dagoen araudia.

8. artikulua. Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna beste dirulaguntza batzuekin

Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Aurreko kasuan, onuradunak organo emaileari jakinarazi beharko dio diruz lagundutako jarduera finantziatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituela, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo du inoiz gainditu, entitate onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua.

9. artikulua. Norgehiagoka bidezko emakida

1. Norgehiagoka prozedura da dirulaguntzak emateko ohiko modua.
2. Hautaketa-prozesuan, batera aztertuko dira, prozedura bakarrean, jarritako epean aurkeztutako eskaera guztiak, eta administrazio-egintza bakarrean ebatziko da oinarri espezifikoetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen edo dituzten eskaeraren edo eskaeren alde, eta, aldi berean, oinarrietan bertan finkatutako balorazio-irizpideak aplikatuz puntuazio handiena lortzen duten eskaeren alde.
3. Emakida egiteko organo eskudunak, arrazoituz gero, aukera izango du hautaketa-prozesua hutsik lagatzeko, edo aurreikusitako zenbateko guztia ez agortzeko.
4. Salbuespen gisa, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean proportzionalki banatuko du dirulaguntzetara zuzendutako gehienezko zenbateko globala.

5. Kide anitzeko organo bat sortuko da eskaerak aztertzeko eta baloratzeko.

Dirulaguntza ematen duen arloko informazio-batzordeko kideek osatuko dute kide anitzeko organoa.

10. artikulua. Zuzeneko emakida

1. Emakidak zuzenean egin ahal izango dira, eta kasu hauetan ez dira nahitaezkoak izango ez norgehiagoka-erregimena ez publizitatea:

a) Udalaren hasierako aurrekontu orokorrean edo Udalbatzak onartutako kreditu-aldaketetan izenez esleituta daudenean.
b) Dirulaguntza bera edo dirulaguntzaren zenbatekoa lege-mailako arau batek agindu dionean Administrazioari.
c) Larrialdiko edo premiazko egoerak erremediatzeko dirulaguntzak, egoera horiek publizitatearen tramitearekin bateraezinak direnean.
d) Deialdi publikoa eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako beste batzuk egiaztatzen dituzten dirulaguntzak.
e) Pertsona onuradunen ezaugarriengatik edo dirulaguntzaren xede edo izaerarengatik egokia ez denean norgehiagoka-erregimeneko emakida egitea. Zuzeneko dirulaguntza horiek beren oinarri arautzaileak eduki beharko dituzte. Hor adieraziko dira onuradunek zer baldintza bete behar dituzten dirulaguntzak eskuratzeko.

2. Hitzarmenak izango dira zuzeneko dirulaguntzen emakida bideratzeko ohiko tresna, artikulu honen 1.e atalean jasotako zuzeneko dirulaguntzetan izan ezik. Azken dirulaguntza horietan, oinarri arautzaileak egongo dira hitzarmenen ordez, eta baldintza aplikagarri guztiak edukiko dituzte.

3. Aurrekontuan izenarekin aurreikusi gabeko zuzeneko dirulaguntzen espedientean, arloko departamentu buruak sinatutako memoria bat sartuko da zinegotzi arduradunaren oniritziarekin. Memoria horretan, dirulaguntzen izaera berezia, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak edo deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten beste batzuk justifikatuko dira.

4. Bai dirulaguntza izendunak emateko proposamenek bai gainerako zuzeneko dirulaguntzak emateko akordio-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

a) Laguntzaren edo dirulaguntzaren xedearen deskribapen zehatza.
b) Gastua aurrekontuko zer partidari egozten zaion.
c) Dirulaguntzaren kudeaketaren organo arduraduna.
d) Laguntzaren zenbatekoa, bere gehienezko zenbatekoa kontzeptuetan banakatua, hala badagokio.
e) Dirulaguntza antolatzeko itun edo hitzarmen baten sinadura aurreikustea eta baimentzea, hala badagokio.
f) Berariaz aipatuko da emakidaren ebazpena alda daitekeela baldin dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira eta, dena den, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik laguntza edo dirulaguntza gehiago lortu badira

eta, hala badagokio, helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabide badaude, betiere laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Ildo horretan, beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera jasotzeko aukera aipatu beharko da, edo, hala badagokio, horiek jasotzearekin bateraezina dela. Bateragarritasuna onartzen bada, gainfinantzaketa saihesteko mugak edo irizpideak jarri beharko dira nahitaez.

g) Ordaintzeko epeak eta modua.
h) Onuradunari jartzen zaizkion epeak eta moduak, emandako laguntza edo dirulaguntzaren helburua bete duela eta jasotako funtsak aplikatu dituela justifikatzeko.
i) Berme-erregimena, bidezkoa denean.
j) Onuradunaren betebehar zehatzak aipatzea, hala badagokio, dirulaguntzen legearen 14. artikuluan modu orokorrean jasotakoei utzi gabe.
k) Zein kasu espezifikotan ez litzatekeen eskatuko dirulaguntzaren ordainketa edo zeinetan izango litzatekeen bidezkoa dirulaguntza itzultzea, dirulaguntzen legearen 37. artikuluan aurreikusitako kasu orokorrei utzi gabe.

5. Dagokion hitzarmenean edo, hala badagokio, emakidaren ebazpenean, gainera, onuraduna, dirulaguntzaren zenbatekoa, helburua, epea eta justifikatzeko modua finkatuko dira.

Hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute.

11. artikulua. Pertsona eta entitate onuradunak

Dirulaguntza emateko arrazoi izan zen jarduera egin behar duen pertsona edo entitatea izango da dirulaguntzaren onuraduna, edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena.

Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zarautzen duten pertsonek edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Salbuespen gisa, udalerriarentzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkaritza ofizialik ez izan.

Elkarteek eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, publikoak edo pribatuak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko, nortasun juridikorik ez badute ere, proiektuak, jarduerak edo portaerak egin baditzakete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude, betiere deialdi bakoitzean hala aurreikusten bada.

Indarrean dagoen araudiaren arabera eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonek edo entitateek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso. Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ebazpen irmo baten bidez eskubidea galtzeko zigorra jaso dutenek, ebazpenean zehaztutako epean, edo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera, inguruabar hauetako batean dauden entitateak ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun:

- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).

- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).

12. artikulua. Organo eskudunak

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio dirulaguntza-lerro bakoitzerako berariazko deialdia egitea eta ebaztea, baita zuzeneko dirulaguntzak ematea ere, une bakoitzean Zarauzko Udalaren administrazio-antolaketan indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzen arabera.

13. artikulua. Prozeduraren hasiera

Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, Alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako deialdiaren bidez, bakoitzari dagozkion eskumenen arabera, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan adierazitako edukia izango du.

14. artikulua. Eskaerak

Dirulaguntzen emakidarako, aurrez eskaera egin beharko da, dirulaguntza-lerro bakoitzerako eredu ofizialaren arabera, eta dokumentazio honekin batera egon beharko du derrigorrez:

- Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.

- Entitate eskatzailearen IFZren fotokopia, hala badagokio.

- Diruz lagundua izan nahi duen proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizkoa, entitate eskatzailearen organo eskudunak onartutakoa.

- Programaren gastuen (kontzeptua eta zenbatekoak) eta sarreren (jatorria eta zenbatekoa) aurrekontua.

- Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituena.

- Euskararen tratamendua, jardueraren hedapenean aurreikusitakoa, dagokion inprimakia beteta.

- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

  Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, ez da beharrezkoa izango interesdunak baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko; eta administrazioak, bere eskumenen barruan, datuen zehaztasuna frogatzeko eta bere esku dauden edo beste edozeinek egin dituen dokumentuak kontsultatzeko eta biltzeko behar diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

- Zinpeko aitorpena, adierazten duena, batetik, sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez duela sexuagatik diskriminazioa egin izanagatik, ez sexu-delituengatik.

Pertsona edo entitate eskatzaileari interesgarri iruditzen zaion dokumentazioarekin osatu ahal izango du dokumentazio hori.

15. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskaerak ez baditu betetzen deialdi-arauan jarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehienezko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, betiere aldez aurretik ebazpena emanda. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da.

16. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua eta epea

Dirulaguntza-lerro bakoitzaren deialdian zehaztuko dira.

17. artikulua. Instrukzioa eta proposamena

1. Deialdian izendatzen den organoari egokituko zaio norgehiagoka bidezko prozeduraren instrukzioa.

Instrukzio-jardueretan hauek sartuko dira:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen edo dirulaguntzen arauek eskatzen dituzten txostenak eskatzea. Txosten horiek 10 eguneko epean egin beharko dira, epe laburragoan edo luzeagoan eskatzen ez badira; eta azken kasu horretan gehienez bi hilabeteko epean.

b) Eskaeren ebaluazioa, dirulaguntzaren arauan edo, hala badagokio, deialdian jarritako balorazio irizpideen, formen eta lehentasunen arabera egindakoa.

2. **Instrukzio-organoak** eskaerak ebaluatu ondoren, propio eratutako **Balorazio batzordeak** txostena egingo du, ebaluazioaren emaitza zehazteko.

Dirulaguntza ematen duen arloko informazio-batzordeko kideek osatuko dute balorazio batzordea.

3. Espedientea eta balorazio batzordearen txostena ikusi ondoren, instrukzio-organoak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoitutakoa, eta hamar eguneko epea emango die interesdunei alegazioak aurkezteko.

Interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran, eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, ez dago entzunaldiaren izapide hori egin beharrik. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

4. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.

Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, eta bere ebaluazioa eta ebaluazio hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak ere bai. Gainera, baztertzea proposatzen dituen eskaerak eta hori egiteko arrazoiak ere zehaztuko ditu.

5. Espedientean, instrukzio-organoaren txostena jaso beharko da, eta, bertan, honako hau jasoko da: bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen dela onuradunek betetzen dituztela dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak.

18. artikulua. Ebazpena

1. Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, organo eskudunak prozedura ebatziko du ebazpen arrazoitu baten bidez, dirulaguntzaren oinarri espezifikoek xedatzen dutenaren arabera; prozeduran egiaztatuta geratuko dira ebazpenaren oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jasoko da gainerako eskaeren ezespena, hala badagokio, eta ezesteko arrazoiak.

3. Ebazpenean honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, justifikatzeko modua eta ordenantza orokor honetan, oinarri espezifikoetan edo

emateko unean indarrean dagoen araudian eskatutako gainerako baldintzak eta betekizunak.

4. Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo entitate eskatzaileei.

5. Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileek ulertu ahal izango dute beren dirulaguntza-eskaerak ezetsi egin direla.

6. Ebazpenak deusezak edo deuseztagarriak izateko arrazoiak administrazio-prozeduraren legerian aurreikusitakoak izango dira. Arrazoi horietakoren bat gertatzen denean, dirulaguntza eman duen organoak ofizioz berraztertuko du dirulaguntza, edo, hala badagokio, kaltegarritzat joko du eta, ondoren, inpugnatu egingo du, administrazio-prozedurari buruzko araudian xedatutakoaren arabera. Ebazpenak ez dira ofizioz berraztertuko, Legearen 37. artikuluan aurreikusitako itzulera-kausak gertatzen direnean.

7. Era berean, egintzak ezeztatzeko eta akatsak zuzentzeko, 39/2015 Legeak 109 artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.

   Dirulaguntzen zuzeneko emakida gertatzen denetan, emakida-ebazpenak eta, hala badagokio, dirulaguntza horiek bideratzen dituzten hitzarmenek jarriko dituzte baldintza eta konpromiso aplikagarriak.

19. artikulua. Onarpena

Dirulaguntza eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da onuradunak dirulaguntza bera eta dirulaguntza emateko baldintzak onartzea, inolako erreserbarik gabe, oinarri espezifikoetan edo dirulaguntza emateko erabakian adierazitako moduan eta epean.

20. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak

Oinarri espezifikoetan jasotakoez gain, hauek dira entitate edo pertsona onuradunaren betebeharrak:

a) Dirulaguntzen emakida eragin duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izatea.

b) Dirulaguntza ematen duen organoari edo, hala badagokio, entitate laguntzaileari justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta dirulaguntzaren helburua bete dela.

c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortzea.

d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta horietan laguntzea,

indarrean dagoen legeriaren arabera, bai eta kontrol-organoek egiten dituzten beste edozein egiaztapen- eta kontrol-jarduera ere, eta jarduera horiek gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia ematea.

e) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik egiaztatzea egunean dituela zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Ikasleei ematen zaizkien bekak eta gainerako dirulaguntzak, baldin eta berariaz lanbide-heziketa arautuko ekintzak finantzatzera bideratzen badira, eta prestakuntza-zentro publiko edo pribatuetan ematen badira.
- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak 3.000 euro gainditzen ez dituenean deialdian.
- Zarauzko Udaleko organo eskudunak ezartzen dituenak, dirulaguntzaren izaeratik, erregimenetik edo zenbatekotik eratorritako eta behar bezala justifikatutako zirkunstantziak direla-eta.
- Administrazio publikoei eta haien mendeko organismo, entitate publiko eta sektore publikoko fundazioei emandako dirulaguntzak, dirulaguntzaren oinarri espezifikoetan berariaz kontrakorik aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei ematen zaizkien gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko dirulaguntzak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuta, ez da beharrezkoa izango interesdunak baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko; eta administrazioak, bere eskumenen barruan, datuen zehaztasuna frogatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatzeko eta biltzeko behar diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan, bai eta dirulaguntzen oinarri espezifikoek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.

g) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea (agiri elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, lau urtez.

h) Organo emaileari jakinaraztea, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera finantziatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituela, beste administrazio edo entitate nazional edo nazioarteko publiko edo pribatuetatik.

i) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein

subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

j) Jasotako funtsak itzultzea, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan.

k) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan jasota geratuko da Zarauzko Udalak diruz lagundutakoa dela.

l) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da, eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

m) Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika…) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.

   Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan.

   Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak…), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea…

   Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

   Hizkuntza-baldintzak betetzetik salbuetsita egon daitezke dirulaguntza sozialak, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo izaera kontuan hartuta hizkuntza-baldintza horiek betetzea ezinezkoa bada, edo ez betetzea erabat justifikatuta badago.

n) Pertsona edo entitate onuradunak indarrean dagoen araudi aplikagarri guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

o) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak bete beharko ditu.

   - Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.

   - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.

- Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

- Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

3. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

21. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa eta ordainketa aurreratuak

1. Dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

2. Aurrekoa gorabehera, diruz lagundutako ekintza dela-eta hala justifikatzen denean, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketa horiek zatikako ordainketak izan daitezke, diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko erritmoari erantzungo diote, eta aurkeztutako justifikazioaren zenbateko baliokidea ordainduko da.

3. Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, hau da, justifikatu aurretik funtsak eman ahal izango dira, dirulaguntzari atxikitako jarduerak egin ahal izateko finantzaketa gisa, oinarri espezifikoetan edo hitzarmenetan edo akordioetan hala zehaztuta, dirulaguntza izendunen edo zuzenekoen kasuan.

4. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu entitate edo pertsona onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez baditu edo itzulketa-ebazpen baten bidez zordun bada.

4. DIRULAGUNTZAREN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA

22. artikulua. Justifikazioa

1. Dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako funtsak dirulaguntzaren oinarri izan zen helbururako erabili direla. Justifikazio hori euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, prozedura honen arabera:

   a) Justifikazioa modalitate hauetakoa izan daiteke:

      - Justifikazio-kontua.
        - gastuen frogagiriak ekarrita
        - auditorearen txostena ekarrita
        - sinplifikatua
      - Moduluen araberako egiaztapena
      - Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea

   b) Justifikazioa onuradunaren edo entitate laguntzailearen nahitaezko egintza bat da. Egintza horretan, aitortzailearen erantzukizunpean, gastu-frogagiriak edo balio

juridikoa duen beste edozein dokumentu sartu behar dira, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela egiaztatzeko.

c) Dirulaguntza publikoen oinarri espezifikoek zehaztuko dute dirulaguntzaren justifikazioa egiteko modua eta epea.

d) Onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduera egiteko dirulaguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion guztiak (jarduera edo programa jakin bat egiteko dirulaguntza ematen bada).

e) Dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatuko ditu, "Unitate monetarioak" izeneko laginketa-teknikaren bidez. Horretarako, hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

f) Ez dira justifikatuko premia sozialei erantzuteko laguntzak eta sorospenak, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko langileek kontrolatuko baitituzte.

g) Nolanahi ere, jarduera egin eta justifikatzeko epea amaitu ondoren, egindako gastuen zati bat bakarrik ordaindu bada, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da.

2. Oro har, honela justifikatuko da jasotako funtsak zertan erabili diren:

a) Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, teknikari eskudun baten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Udalak udal teknikari bat izendatu ahal izango du egindako obren edo instalazioen berri eman dezan.

b) Helburua material suntsikorra erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko beste bat bada, jatorrizko egiaztagiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira.

c) Oinarri espezifikoetan jarriko da kasu bakoitzean zein den justifikaziorik behar ez duen oroharreko portzentajea. Halaber, oinarri espezifikoetan, hala badagokio, moduluen bidez justifikatu beharreko gastuak eta horien zenbatekoak jarriko dira.

3. Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dituzte aurkeztu behar funtsen erabilera justifikatzeko fakturak; Nazio Batuen agentzia desberdinen funtzionamendurako erabakitako kontabilitate-kontrol espezifikoa hartuko da justifikaziotzat

4. Dirulaguntzaren xede zen jarduera amaitutakoan, diruz lagundutako jarduerei edo programei buruzko dokumentu hauek aurkeztu beharko zaizkio dagokion administrazio-unitateari, deialdietan ezarritako epeetan:

a) Deialdi horren barruan diruz lagundutako jardueren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balorazioarekin. Memoriak genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza jaso beharko du eta diruz lagundutako proiektuaren parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

b) Laguntza ekonomikoaren ondorioz sortutako jardueran egindako azterlanen, programen, argitalpenen, iragarki-kartelen eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

c) Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreren balantzea, entitateko idazkariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin.

d) Jardueraren gastuak eta inbertsioak justifikatzeko dokumentuen kopia eta zerrenda sailkatua (dagokion eredua), entitatearen diruzainak sinatuta, eta hartzekoduna eta dokumentu mota, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data identifikatuta. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

e) Hizkuntza ofizialen benetako erabileraren justifikazioa, dagokion inprimakiaren bidez.

Onuradunek dirulaguntzaren xedea bete duten egiaztatzea

Udalak, egoki iruditzen zaizkion bitartekoen bidez, egiaztatu ahal izango du emandako zenbatekoak eman ziren helburuan inbertitu direla. Hala ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira, eta beste erantzukizun batzuk eskatu ahalko dira.

Dirulaguntza eman duen organoak egingo du egiaztagiriak onartzeko espedientea.

Dirulaguntza eman duen organoak dirulaguntza behar bezala justifikatu dela egiaztatuko du, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duen helburua bete dela ere; horretarako, udal departamentuak dagokion txostena egingo du.

Udalak egiaztatzea dirulaguntzaren xedea bete den

Dirulaguntza eman duen organoak urteko jarduera-plana egin beharko du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak egin dituztela frogatzeko.

Plan horretan adierazi beharko da ea dirulaguntza guztiek daukaten egiaztapena egiteko betebeharra edo emandakoen lagin batek bakarrik, eta, azken kasu horretan, nola hautatu lagina. Egiaztatu beharreko alderdi nagusiak eta egiaztapena egiteko unea ere jaso beharko ditu.

Dirulaguntzen finantza-kontrola 38/2003 Legearen III. tituluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

5. AURREKONTUAK KUDEATZEKO PROZEDURA

23. artikulua. Gastua onartzeko eta ordainketa egiteko prozedura

1. Dirulaguntzaren deialdia egin edo dirulaguntza zuzenean eman aurretik, gastua onartu beharko da, aurrekontu-araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.

2. Dirulaguntza emateko ebazpenak dagokion gastuaren konpromisoa ekarriko du berekin.

3. Ordaintzeko betebeharra eta agindua Alkatetzaren dekretu bidez emango da, aurrekontua gauzatzeko arauetan ezarritakoaren arabera.

4. Justifikazioa aurkezten ez bada edo Dirulaguntzei buruzko Legean itzulketarako aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, dirulaguntza osoa edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

DIRULAGUNTZEN ITZULERA

24. artikulua. Itzulera

1. Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira (dirulaguntzaren ordainketa-egunetik itzulketaren erabakiaren egunera artekoak), baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada, bai eta oinarri espezifikoetan aurreikusitako kasuetan ere.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, beraz, premiamendu-bidez eskatu ahal izango dira, baldin eta itzulketa ez bada egiten zehazten diren epeetan.

3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioak betetzean ondorioztatzen bada jasotako dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak daudela, zantzu horiek espedientean jasoko dira, eta beharrezko kautela-neurriak hartu ahal izango dira.

25. artikulua. Itzulera-prozedura

1. Dirulaguntza eman zuen organoak eskumena izango du emandako zenbateko osoa edo zati bat itzul dadila eskatzeko, ebazpen bidez. Administrazioak itzulketa aitortzeko edo likidatzeko duen eskubidea lau urtera preskribatzen da.

2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, goragoko agindu batek eskatuta, beste organo batek arrazoitutako eskaera eginda, edo arlo horren finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketa baten bidez edo partikularrak berak egindako komunikazio baten bidez. Kontu-hartzailetzak egindako finantza-kontroleko txostenaren ondorioz ere hasiko da.

3. Prozedura izapidetzean, beti bermatuko da interesdunari entzunaldia emateko eskubidea.

4. Emandako dirulaguntza osoa edo zati bat behar ez bezala aplikatu dela egiaztatu ondoren, ebazpen arrazoitua emango du organo eskudunak. Ebazpen horretan berariaz adieraziko dira itzultzeko betebeharra sorrarazten duten arrazoiak, itzuli beharreko zenbatekoaren kuantifikazioa, eta itzultzeko modua eta epea. Halaber, ohartaraziko da ezen, aurreikusitako epean itzulketa egiten ez bada, premiamendu-bidez egingo dela.

5. Aurreko paragrafoan deskribatutako itzulketa-ebazpena jakinarazi ondoren, Finantza Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu espedientearen izapideak, zuzenbide publikoko dirusarreretarako legez eta erregelamenduz aurreikusitako arauei jarraituz.

6. Arau-hauste administratibotzat hartu diren gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zigor-prozedura has dezan.

7. Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakiaren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, prozedura iraungi egingo da; hala ere, jarduketak amaitu arte aurrera egin ahal izango da, eta aipatutako epea amaitu arte egindako jarduketek ez dute preskripzioa etengo.

7. ZIGOR-ERREGIMENA

26. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 56, 57 eta 58. artikuluetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak; zabarkeria hutsez egindakoak ere zigortu ahal izango dira.

Dirulaguntzaren baldintzak betetzen ez badira, kasu bakoitzean dagozkion erantzukizunak sortuko dira, eremu hauetan:

a) Administrazio-erantzukizuna: dirulaguntza emateko administrazio-egintzan jasotako formazko eta prozedurazko baldintzak ez betetzeagatik eskatuko da. Udalak berak hasitako zigor-espedientearen bidez eskatuko da.
b) Kontabilitate-erantzukizuna: Bi maila hauetan eskatuko da:
   b.1) Kanpoko fiskalizazioa egiteko eskumena duen organoa Herri Kontuen Euskal Epaitegia da.
   b.2) Kontabilitate-erantzukizuna epaitzeko eskumena duen organoa Kontuen Auzitegia da.
c) Erantzukizun penala: Auzitegi arruntei dagokie, bereziki dirulaguntzak izapidetzean eta dokumentuak faltsutzean egindako delituei dagokienez.

27. artikulua. Zigor-prozedura

Zigorrak jartzeko eskumena izango du, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren eta eskumenak eskuordetzan emateko egituraren arabera, eskumen hori jaso duen organoak.

Zigor-prozedura tramitatzeko, administrazio publikoen administrazio-prozedura eta zigortzeko ahalaren erabilera arautzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenetan xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta dirulaguntza publikoak arautzen dituen araudian aurreikusitakoari ere.

Arau-hausteak lau urteko epean preskribatuko dira, egin diren egunetik kontatzen hasita.

Zigorrak lau urteko epean preskribatuko dira, zigorra jarri zuen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ezartzen diren diru-isunek ez dute zerikusirik izango dirua itzultzeko betebeharrarekin, eta, kobratzeko, zuzenbide publikoko diru-sarreretarako aurreikusitako erregimen juridikoa aplikatuko da.

28. artikulua. Zigorrak

Zigorrak Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 59. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera jarriko dira.

Zigorrak kasu zehatz bakoitzean 38/2003 Legearen 60. artikuluan jasotako inguruabarren arabera mailakatuko dira.

29. artikulua. Prozesu penalarekiko konkurrentzia

Prozeduraren tramitazioan agerian geratzen bada onuraduna arau-hauste penala dakarren ekintza edo omisio batean sartuta egon daitekeela, Administrazioak jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dio, eta zigor-prozedura etetea erabakiko du ebazpen judizial irmoa eman arte.

30. artikulua. Beste zigor-espediente batzuekiko konkurrentzia

Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimenak betetzen ez badira, zigor-espedienteak irekiko dira, eta baimena eman zuen administrazio-unitateak tramitatuko ditu espediente horiek.

Espediente horietako diru-isunak konpentsatu ahal izango dira, jaso gabe dauden dirulaguntzen zenbatekoen kontura.

31. artikulua. Kalteak ondasun publikoetan

Diruz lagundutako jarduera garatzean kalteak eragiten badira ondasun publikoetan, kontraesaneko espedientea tramitatuko da horiek zehazteko. Jasotzeko dagoen dirulaguntzaren kargura konpentsatuko da eragindako kalteak birjartzeko edo konpontzeko zenbatekoa. Zenbateko hori osorik estaltzera iristen ez bada, neurri egokiak hartuko dira gainerako zenbatekoa kobratzeko.

8. PUBLIZITATEA

32. artikulua

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.

Horretarako, administrazio emaileak erabakitako deialdi eta ebazpenei buruzko informazioa bidaliko dio BDNSri, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez.

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.

Ez da argitaratu beharko, dirulaguntzek Udalaren aurrekontuan esleipen izenduna dutenean.

Dirulaguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta, dirulaguntzaren xedea dela-eta, datu horiek argitaratzea pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta babestearen aurkakoa izan badaiteke, eta hala jasotzen bada dirulaguntza zehatzaren oinarri espezifikoetan.

Dirulaguntza jasotzen duen pertsonak edo entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak diruz lagundu duela jarduera.

Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.

Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen publizitatea egin beharko dute, zenbatekoa eta helburua adierazita, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:

- Entitate pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
- Interes sozial edo kulturaleko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienen jatorri den Administrazio Publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.

9. BALORAZIO IRIZPIDEAK: BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA

33. artikulua

Zarauzko Udalak, dirulaguntza publikoak erregulatzen dituzten oinarri edo arauetan, balorazio-irizpideetan, baremoaren guztizko % 5a izango da, gutxienez, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutakoa. Puntu honetan balorazio-irizpide batzuk proposatzen dira. Halere, hala badagokio, beste balorazio-irizpide batzuk ezarri daitezke, Parekidetasun Departamentuaren aholkularitzaz:

- Diruz laguntzen den proiektuak berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta/edo antolatutako jarduerek genero-ikuspegia edukitzea, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, arazoak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla.

- Dirulaguntza jasotzen duten elkarteen ardura-postuetan eta erabakitzeko organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea.

- Dirulaguntza jasotzen duten entitateen osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea.

- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaurgarriagoan daudenentzako eta/edo diskriminazio- edo bazterkeria-egoeran daudenentzako proiektuak edo jarduerak izatea (emakume migratzaileak, zaintzaileak, etxeko langileak, dibertsitate funtzionala dutenak…).

- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ibilbide bat egiaztatzea.

- Beren estatutuetako helburuen, xede sozialen edo sorrerako helburuen artean berdintasunaren sustapena izatea.

- Diruz lagundutako proiektua edo jarduera exekutatuko duten pertsonek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea.

Hori guztia, baldin eta objektiboki justifikatzen ez bada ehuneko hori neurriz kanpokoa dela dirulaguntzak emakume eta gizonen egoeran duen inpaktuari dagokionez.

34. artikulua

Dirulaguntzak baloratzeko irizpideetan, ondorengo hizkuntza-irizpideak txertatuko dira, eta gutxienez lehenengoa:

- Jarduera euskaraz hutsez gauzatu eta zabaltzea.
- Euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea, bai jardueraren garapenean, bai entitatearen barne funtzionamenduan.

10. INTERPRETAZIOA

35. artikulua

Alkatetzak ahalmena izango du Ordenantza hau interpretatzeko eta aplikatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko.

11. ERREKURTSOAK

36. artikulua

Ordenantza honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, Udalbatzarraren aurrean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan Ordenantza hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Jasangarritasunaren helburua ahalik eta gehien betetze aldera, araudi honetan aipatzen den dokumentazio guztia eta Udalari dirulaguntzak eskatzen dizkietenek lantzen dutena DIN A-4 formatuan egingo da, paper birziklatuan, bi aldeetatik inprimatuta eta ahalik eta paper gehien aurrezten duen orrialde-konfigurazioarekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo aurka dauden udal arau eta xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egun baliodunean sartuko da indarrean.

DATUAK **2008I1330003**

Hasierako onespena:	2008ko maiatzaren 7an
Iragarkia GAOn:	2008ko maiatzaren 20an (95 zk.)
Iragarkia prentsan:	2008ko maiatzaren 15ean (DV)
Alegazioak aurkezteko epea:	2008ko ekainaren 24an
Behin betiko onespena:	2008ko uztailaren 16an
GAOn testua:	2008ko uztailaren 22an (140 zk.)
Indarrean:	2008ko abuztuaren 11n

ALDAKETA 2016

Hasierako onespena:	2016ko martxoaren 31n
Iragarkia GAOn:	2016ko apirilaren 13an (68 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2016ko maiatzaren 25ean
Behin betiko onespena:	
GAOn testua:	2016ko ekainaren 3an (105 zk.)
Indarrean:	2016ko ekainaren 28an

ALDAKETA 2018

Hasierako onespena:	2018ko irailaren 27an
Iragarkia GAOn:	2018ko urriaren 8an (194 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2018ko azaroaren 21ean
Behin betiko onespena:	
GAOn testua:	2018ko abenduaren 3an (232 zk.)
Indarrean:	2018ko abenduaren 27an

ALDAKETA 2022 **2021I1330001**

Hasierako onespena:	2021eko azaroaren 25ean (12 akta)
Iragarkia GAOn:	2021eko abenduaren 20an (241 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2022ko otsailaren 1ean
Behin betiko onespena:	
GAOn testua:	2022ko otsailaren 21ean (034 zk.)
Indarrean:	2022ko martxoaren 15ean

ALDAKETA 2024 **2023IIII0027**

Hasierako onespena:	2024ko urtarrilaren 25ean (01 akta)
Iragarkia GAOn:	2024ko otsailaren 5ean (25 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2024ko martxoaren 18an
Behin betiko onespena:	
GAOn testua:	2024ko apirilaren 5ean (66 zk.)
Indarrean:	2024ko apirilaren 29an